

Munduko urtegi handienaren eraikuntza Txinan

# Hiru Arroilak arrailtzen

Yangtze ibaian urtegi erraldoia eraikitzen ari dira, munduko proiektu hidroelektriko handiena; baina, oraingoz, arazo iturri baino ez da Txinako Gobernuarentzat

**IDURRE ESKISABEL**

Munduko ibairik luzeenetako bat da Txinako Yangtze: 6.380 kilometroko luzera du, eta, beraz, Hego Amerikako Amazonasen eta Afrikako Niloren atzetik, munduko hirugarrena da. Paraje zoragarriak zeharkatzen ditu, ur emari etengabearen bidez paisaia bere nahierara marraztuz, ingurua edertuz, batik bat Hiru Arroilen eremuan: Qutang, Wuxia eta Xiling arroila itzelek mugatzen duten ingurunean.


Yangtze ibaia ederra eta handia da, baina gizakiaren askonahia, oraindik eta handiagoa. Hain zuzen ere, Txinako Gobernuaren aspaldiko ametsa Yangtze menderatu eta urtegi hidroelektriko erraldoia eraikitzea da. Munduko urtegi hidroelektrikorik handiena. Hiru Arroilen ingurua aukeratu zuten horretarako.

Arazo handiak sortu ditu Hiru Arroiletako urtegi proiektuak: batetik, eskualde hartako jendearekin. Izan ere, 600 kilometroko hedadura hartuko du urtegiak eta eremu horretan herri asko daude. Beren etxeetatik alde egiteko prest ez zeuden herritarrekin sortu ziren aurreneko arazoak. Hainbestearinokoak, ezen 1989an Txinako Gobernuak egitasmoa bertan behera lagatzea erabaki zuela. Baina geroago, Tiananmengo getakari larrien ondoren indarra erakutsi beharrean edo, Li Peng lehen ministroak proiektuari heldu zion berriro eta lanak has-teko agindua eman zuen 1994an.

## Ustelkeria

Ia zortzi urte dira, beraz, Hiru Arroiletako urtegi erraldoia eraikitzen hasi zirela, eta bukatzeko, oraindik ere beste hamarren bat beharko direla esaten du Txinako Gobernuak. Nolanahi ere, azpiegitura lan handiak egin dira zortzi urteotan, eta, horrez gain, urak estaliko duen 600 kilometroko eremuan bizi diren ia bi milioi lagunak beste leku batzuetara eramaten hasi dira. Era berean, proiektuaren aurrekontua ikaragarri handia da (24.000 milioi dolar), eta, gainera, obrak bukatzen direnerako hirukoiztu egingo dela esaten dute adituek.

Baina bestelako arazoak ere eman ditu Hiru Arroiletako urtegi proiektuak. Besteak beste, agerian utzi du Txinako Administrazioa zenbaiteraino dagoen usteldua, diru erabilera txarren eta tratu zikinen kasu ugari agertu baitira lanak hasi zirenetik. Duela bi urte, urtegiko lanen 97 ardu-



Hiru Arroiletako urtegia eraikitze lanak. • GREG BAKER / AP

**Txinako Metereologia Institutuaren arabera, tenperaturan, euri kopuruan eta haizean aldaketak eragingo ditu urtegi berriak**

radun espetxeratu zituzten, tratu usteletan harrapatu zituztelako.

Aste honetan bertan, urtegiari eutsiko dioten hormetan hainbat pitzadura agertu direla jakinarazi du Txinako Gobernuak ikuskatzaile batek. Pitzadura horien konponketak, lanak atzeratu eta garestitu egingo dituztela azaldu zuen. Zehatz-mehatz, Quian Zhengying Ur Baliabideetako ministro ohia izan zen urtegiko lanak ikuskatzera joandako taldearen burua eta Txinako komunikabideei arrailen berri eman ziena.

Pitzadurek 2,5 metro inguruko sakonera dutela nabarmendu zuen Ur Baliabideetako ministro ohiak, eta ziur asko lanak ez direlako behar bezala egin sortu direla. Azken batean, obretako arduradunek, beren buruak aberastearren, Gobernuak agindutakoak baino material merkeagoak erabili dituztelako.

Arrakalak eta arazoak bazirela jakina zen lehenago ere, baina aurreneko aldiz orain jakinarazi ditu Txinako Gobernuak komunikabideen aurrean.

## Klima aldaketaren beldur

Nolanahi ere, pitzaduren hori ez da aste honetan Hiru Arroiletako urtegiaren inguruan sortu den albiste txar bakarra. Aitzitik, proiektuak inguru zabal bateko klima alda dezakeela jakinarazi du Txinako Metereologia Institutuak. «Tenperaturan, euri kopuruan eta haizean aldaketak izango dira», adierazi zuen Institutuko buruak. Tenperatura, gradu zentrigradu heren batetik gradu zentrigradu bat bitarte igoko dela iragarri zuen.

Dena dela, Txinako Gobernuak alde ona ikusi nahi izan dio Metereologia Institutuak emandako albiste txarrari, eta klima aldaketa onerako izango dela adierazi du. Izan ere, zitriko ekoizle asko dago inguru hartan eta giroa epeltzea haientzako mesedegarria izango dela azpimarratu du.

AEBetako zientzialari talde batek ere iragarri zuen duela urtebete Hiru Arroilen eraikuntzak klima aldatuko zuela, eta ez bakarrik urtegiaren inguruan, baizik eta Txinatik kanpo ere eragina izango zuela. Zehazki, Hiru Arroilen ondorioz Japoniako klima epeldu egingo dela adierazi zuten.